

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AÑANAKO UDALA

Bake epaile titularren eta ordezkoren kargua betetzeko deialdia

Botere Judizialaren Lege Organikoaren 101. eta 102. artikuluek eta 3/1995 Erregelamenduaren 4. eta 5. artikuluek xedatutakoa betetzeko, jakinarazten da udalbatzak bake epaile titularren eta ordezkoren karguak betetzeko pertsonak izendatzeko proposamena egingo diola, ezarritako epean, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Gobernu Batzordeari.

Interesdunek udalaren idazkaritzan aurkeztu beharko dute eskaera, idatziz, hamabost egun balioduneko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, eta honako dokumentu hauek erantsi beharko dizkiote eskaerari:

a) NANaren fotokopia.

c) Erantzukizunpeko aitorten bat alderdi hauek jasoko dituen:

— Ez dela doloazko delituagatik kondenatua izan edo, hala badagokio, birgaitzea lortu duela.

— Ez dagoela doloazko delituagatik prozesatuta edo inputatuta.

— Eskubide zibil guztien jabe dela.

— Espainiarra eta adinduna dela, ez dagoela ezgaituta fisiko edo psikikoki eginkizun judizialerako eta herri honetan biziko dela, salbu eta Auzitegi Nagusiaren Gobernu Salak baimena ematen badu.

— Ez duela Botere Judizialaren Lege Organikoak 389. artikulutik 397. artikulura bitartean ezarritako ezintasun, ezgaitasun edo debekuren bat.

Guztiek jakin dezaten eta dagozkion ondorioak izan ditzan jakinarazten da.

Añana, 2026ko martxoaren 4a

Alkate-lehendakaria

JUAN CARLOS MEDINA MARTINEZ